

Jose Sagarna

Markina aldean gauz arrigarriak gertatzen ari zirala entzun genduan. Arbola bat, lurrean errota zegoen arbola berekaxa zuzendu zala. Gero, ia illabete bat zutik egonda, berriz lurrera erori zala. Jendea marmarka, baietz eta baietz apaiz batek egindako mirariak zirala aiek esanaz zegola. Ain zuzen, antxe fusi-latu zuten Jose Sagarna* apaiz Jaunak egindako mirariak dirala. Jendea joaten eta joa-ten asi zala, ta. a.

Orain gutxi arte, guk ere ez degu ezer garbirik jakin, emen-dik eta andik zer edo zer entzuten genduan, baña askotan gauz ezberdinak. Orain zer bait ba-dakigu. Ara zer.

N O R Z A N D N . J O S E

Zeanuri. Bilbo'tik Gazteiz'era goazela Barazar neketsuaren oiñetan exerita arkitzen dan erritxo da Zeanuri. Zelai une txiki batean dago. Gor-beata Lekanda kopet-arroan babespean. Bi milla bosteun bat bizilagun izango ditu. Ortxe nunbait.

Erri txiki ontantxe ba mundura etorri zan gure Jose Sagarna Uriarte apaiz Jaun agurgarria; ementxe jaió zan Kristo ta Euzkadi'gatik bizia kendu-ko zioten Sagarna apaiza, 1912'ko azaroaren 14'ean. Eguna bertan bataiatu zuten. Ama bizi da. Amaika seme alaba ditu mundura ekarriak. Lenengoa amasei illabeteen buruan Jaunak berekin eraman zuan. Figarrena gure Dn. Jose zan. Gaur egun, zazpi mu-til ta neska bat bizie dira.

Amaika urtekin seminariora abiatu zan, Seminarioko gauzak gutxi dakizkigu, guk beintzat. Apaizgai baten agiririk oberena eman digute alaz ere.

Serioa ta alaia zala. Bear zanean alaia ta serioa bestetan. Auxe ba izan da eman diguten erantzuna.

Pelota zale ta pelotaria zan mutilla. Baita futbolistea ere. Bizkorra ta ariña, beraz.

Euskaltzale pijoa zala diote. Zeanuriko seme bat ezin bestela.

APAIZ.

Urte aietan (1935) Bizkai, Araba, Gipuzkoak osatzen zuten lurraldea Obispadu bat zan. Gotzai bat zuan. Euskalduna bera: Mateo Mugika ospetsua. Onek Gazteiz'en 1935'ko garagarrillaren 16'ean apaiz egin zuan. Berarekin batera Zeanuri'ko beste bost seme ordenatu ziran. Sail polita. Ez al da ala? 28'an eman zuten Meza Berria. Eguneroko gauza etzala eta betikotik kanpo, jai txiki bat egin zan Zeanuri'n. Gotzai Jaun Mateo Mugika ta Igorreko beste Gotzai mixiolari bat etorri ziran. Zeanuri'ko beste apaiz mordo bat juntatu zan, ta bapo. Sei apaiz berrien artean egun ederra ospatu zuten.

Ura poza ta atsedena pamilikoena! Seme zaarrena apaiz zuten. Betiko apaiz. Pamiliko goraberatan babes bat izango zuten ~~goraberatan~~ aurrean: seme-emeapaiza.

ARTZAI

Ainbeste amets ernearazi zizkion apaizgintza, oraintxe zuan ^{gure} ~~gure~~ in utitillak bete-betean. Jaungoikoaren naiera prest zegon. Jaungoikoaren eta Gotzai Jaunaren naiera. Nola bestela, bere apaizgintza ~~ba~~ zuan ilusio iturri!

Amalloa du bere lenengo artzai tokia; parroki txiki bat da. Berreun bat bizi lagun ditu. Parroki izanik Berriatua da erria. Amalloa auzo bat. Oneraxe bada bidalizuten Dn. Jose Sagarna. Bakarrik egongo da. Baña denbora gutxian. Ez du urtebete osoa egingo. 1936ko maiatzaren 18'an Berriatua'ko destinua artu du. Garagarrillaren 29'an sartu zan.

Maiatzean gabilitza. Ta jakia, uztailean burutuko dana eltzen dijoa. Alegia, Espaini'ko gerrate nazkagarria eltzen zijoan. Apaizentzat urte txarrak auk. Errepublikak berez ona da, baña errepublika osatzen dutenak ez ain onak. Frakotarrak berriz, zer esanike ez.

Emengo bizitza balantzaka asia zegon ordurako. Gaizki zebiltzan ba gauzak gure Dn. Jose Berriatua'ra joan zanean.

DETENITUA

Amalloa'n denbora gutxi egin bazuan, Berriatua'n gutxiago. Garagarri- lletik urrilla alderarte.

Uztaillak 18. Franco ta kidekoak altxatu dira. Espaini'ko gerratea asia da. Iruña'ko abertzaleen batzokiak eta itxi dituzte. Falankea etsaia. Gipuzkoa'n ditugu geroxeago. Begira ^{minu} gutxi ~~gin~~ dabilta. Jota garbitu besterik ez dute nai. Bizkai'ra... baña gudariak arpegia eman. Gudariak "naikoa" da esan die. Alaz ere indarra nagusi atera da, ta indarra besteen alde zegon. Dn. Jose Amalloa'n bikario zan garaian, ba-zan an baserritar bat ezkondurik bizi arren, ezkongabeko maixtra batekin nasturik zebille- na. Dn. Jose'k nasketa orren berri jakiaz maixtrari atenzioa eman zion bakarrean. Au naikoa izan zan gizonak bere garaian, gorrotoak bultzaturik apaiza salatze- ko.

Francotarrak sartzeko ziranean Dn. Jose Prantzi'ra iges egiteko zegon. Automobillean lagun batekin abiatu ere egin zan. Baña, Berriatua ta Amalloa'ko bidegu- rutzera iristean, Amalloa'ra joan bearra zeukala esan zuan. Zerhat artu bearra baizeu- kan.

Lagunak segitzeko erregutu zioten. Baña, alperrik, Urrengo goiz arte geldituko da.

Baserri batean ^a g^a egiteko gelditu da. Apaldu naiz lo ementxe egingo di- tu.

Baña, urrengo goizerako Amalloa'n ditugu "besteak". Beraz, ez aurrea ez a^zzea gelditu da. Ateratzen bada jota garbituko dute. Zer egin? Ezer ez. Egon. Meza ere eman bear ordea, ta... pixkaba azaldu egin bear. Ontan maixtrarekin naastuta zebi- llen gizon arrek ikusi du ta kito. Ikusi ta salatu, dana bat.

Komandantea agertu da baserrian etxeoandreaki Dn. Jose'ren berri galé dezka. Etxekoandreak ezezko borobilla emané dio. An ez dagola. Pistola bularra gaiñean jarriaz, ilko duala esanaz bigarren aldiz galdetu dio. Etxekoandreak izututa soroan zebiltzan bere senar ta gizonari ots egin die. Orduan komandanteak besoz-beso lotu di- tu gizonak.

Baserritarrak jantziak aldatzeko kontua aitatu dio. Alegia, bear bada

egun batzuetako joan bearra edo izango zutela ta jantziak aldatzen uzteko eskatu diote. Dardar otzean gelditu dira. Ura erantzuna komandantearena! Ez dagola jantziarik aldatu bearrik; ordu gutxiko bizitzaren jabe dirala, ez die ba esan komandanteak!

Baña, Dn. Jose azaldu da. Negarrez dator; eskuekin aurpegia estaltzen du. Uzteko gizon aiei pakean, Bera dala-ta ez ditula galbidean jarri nai, adierazi dio komandanteari.

Dn. Jose preso egin dute. "Beste" oiek arrapatu dute.

Lenengo, eleizara eraman dute. Au berriz, guardiz inguratuta utzi dute. Ta...aldameneko trabexnan komandanteak ta salatariak bankete ederra bota zuten! Eleizan egunbat eduki dute. Gero, Amulategi baserrira eraman eraman. Baserrian izan balitz... tira. Baña, bertako txerrikian eduki zuten bi edo iru egunen buruan.

Berak eskatu zuan: Meza batzuk esan bearrean zeuskala-ta, utziko ote zioten bukatzen. Bai, utzi zioten. Berak Meza jantziarik ez ta kapillauak utzi zizkion bereak; berekin ain ondo portatu zan kapillau naparrak.

Amulategi baserrian juizioa egin zioten.

Alakoxe batean, ezkutu-ezkutuan, txokolate puxka bat eman zion baserritar batek.

- Jaungoikoa zugaz akordatuko da ta goserik ez dozu pasatuko - esan zion Dn. Jose'k.

Bein eta berriz bere iritzia eskatzen zaio.

- Soy euskaltzale como el Sr. Obispo - erantzun zien.

(Euzkadi" 1936'ko XI'k 8 - 1'go or.)

Zer besteeri ? Bost ajola erantzun au. Aiek geiago nai zuten. Jo berriz galdereri.

- Soy, y no lo oculto, nacionalista vasco.- erantzun zuan trebetasun guztiarekin. (Berdin...)

Ura pekatua esan zuana! Naikoa parete kontra jarri ta garbitzeko.

- No necesitamos más. Con eso nos basta. - bota zion komandanteak.

(Berdin...)

Bi aldiz aitortu zan. Etsai aien kapillauak entzun zion. Kapillauak negar egiten zuan absolutzioa ematean. Izan ere, ain xamurrak ta garbiak izango ziran

- Señor comandante, el fusilamiento de este sacerdote es un crimen horrendo que vais a cometer y que no puede quedar sin castigo divino. No lo hagais, no lo ordeneis que le maten -- Au kapillauak komandanteari. (Berdin...)

- Me es indiferente. Póngase en su lugar y termino con ello.

ERIOZTA

Ba-daki Dn. Jose Sgarinak bereak egin duala. Etsai oien eskuetan erori zanakoxe bururatu zitzaion, noski. Aurki da lurrean zerraldo erori-ta, illotzik.

Otoitzean dago. Goiko Jaunarekin alkar izketa xamurrean.

Urte bete ta geixago apaiz egin zala, ta bereak egin du. 24 urte ta eriotza du aurrean. Bere ardiak uzteak min emango zion. Zer egingo da ba ? Jaunaren borondatea izango da-ta.

Sagar arbola baten ondoan iltzeko jarri dute. Baña, eleiza begien aurrean zuala iltzea nai zun. Bere esanera jarri da. Goraxeago eraman dute. Lengo tokitik 33 metrora edo. Eleiza ikusten da ta aruntz begira jarri da.

- Begiak aske edo lututa ? - galdetu diete.

- Aske, ez baidiot iñori gaitzik egin - erantzun.

- A mí me matareis, pero el ideal por el que me llevais a la muerte no lograreis extirparlo en los corazones de los hombres de esta amada tierra. Ese ideal prevalecerá - esan die fusillak altxatu dituztenean.

(Euzkadi" 1936'ko XI'k 8 - 1'go or.)

Beren oker orrek ondorengoa izango dula ere adierazi die. Asmatuko du.

Fusil ots legor bat... ta kito. Bukatu da.

Bat geiago. Euzkadik Jaunari eskeñi dizkion apaiz laguntzalle bat geiago goialdean. Beran ez baño goian justizi egingo zaio.

"Es un crimen horrendo que vais a cometer" kapillauak esan zien. Bai, orixe besterik ez da. Neguko gau bildurgarriena baño pekatu beltzagoa. Ori al da "Kruzada" ta "Kruzada" egiteko modua ?

Dn. Jose'k berak adierazi die zien bezela oker orrek ondorengoa ekarri zuan. Egun gutxi barru Markina'ko saioan, komandanteari kañoi bala batek anaka garbitu zion. Gaixotetxera eraman dute. Alperrik. Andik etorritako pasmo errukigabeak

beste mundura eraman zuan.

Dn. Jose onari tiroa botatako batek gaixotetxean aitortu bide zuan: Bi min zeuzkala, bata anka zauritua zeukalako; ta bestea aingeru bat il zute-lako. Etzekielako etzan. Ez. Kapillauak garbi asko esan zien. Baña ain zeuden itxutuak! Illerrian (kanpusantuan) eortzi zuten. Milrayas prakak; jertxe gorria ta bizkaitar txamarra (gudariak zerabilkitena) zituan soiflean. Soldadu manta batean bilduta illobiratu zuten.

Kamillan zeramakitelera baserritar batek galdetu zien.

- Zer, erittun bat?
- Ez ilda dago.
- Nor da ba?
- Dn. Jose.

Etzioten gurutzerik ipiñi. Gaur egun egurrezko bat dauka. Baña, au apaizak orain gutxi jarria da.

GERO GERTATUAK

Berriatua'n eta auzoko errietan Dn. Jose santutzat omen daukate. Santu mirarigille baten antzo, gañera. Gertakizun asko berari zuzentzen baidizkiote. Ikusi ditzagun bat edo beste.

- Dn. Jose detenitua zegon. Len esan degun bezela, baserritar batek ezkutuan txokolate pixka bat eman zion. Dn. Jose'k eskertu zuan baserritarren biotz zabala. Baita aurrean ondo izango zala esan ere. Gaur egun, baserritar au baserria utzita uri batean bizi da. Ta gañera, ondo bizi bear du. Ez degu aberats esan nai. Ez. Baña, ederki, gose gabe ta lasai. (Errespetuz nun bizi danik ez degu esango.)

- Garagarrillaren 26 ean aize gogorra izan genduan Bizkai guztian. Orduntxe ba, aizeak eraginda Berriatua'n arbola bat erori zan. Amulategi baserri aurrean gertatu zan erortze ori. Ain zuzen, iltzeko asmotan Dn. Jose eskuak loturik eduki zuten arbola beraren kontra. Sagarra zan. Baña, orain dator gogorra! 1958'ko azaroaren 13-14'ko gauean arbola iñoren laguntzarikan gabe zutitu egin zan. Urrengo egunean, 14'ean, baserritarrek bereala ikusi zuten. Ikusi ta zabaldu, dana batera. Dn. Jose Sagarra'ren apaiz lagun batek esanda, jendea bereala konturatu zan, alegia

alegia egun artan Dn. Jose'ren urtebetetzea zala. Ta egia. Dn. Jose azaroaren 14'ean jaio zan. Jendea arbolari tiraka ibilli zan, baña ez alperrik. Arbola tinko segitsen zuan. Asi da jendea marmarka, baietz Dn. Jose'k egindako miraria dala ori esanaz. Ezin leikela besteia.

Ontan abenduaren 11'an, arbola berriz ere iñork bultzatu gabe lurre-ra erori zan. Jendearentzako beste mirari bat.

Ez da itz egitea bakarrik izan. Arbola bidean jarri da jendea. Arbolara otoitz egitera joan da jendea. Askok belaunikatu ta errosarioa errezatu duté gañera. Sgar arbolaren puxketatxoak erreliki bezela eraman ere bai.

Bai, baña aurki guardiak ipiñi dituzte. Ez dago pasorik, auek esaten zuten.

Azaroaren 23'an Ondarroa'tik autobus batzuk etorri nai zuten, baña bai zera, etzitzaien utzi.

Ondarroa, Lekeitia ta Markina'ko taxisteri ere Berriatua'ra arbola ikustera jendeaeramatea debekatu egin zien. Abenduaren 7'an Ama Birjiñaren bezperan, zortzi guardi kontatu zituzten arbolako bideak gordetzen. Bidea zabalik uzti bazuten...

- Arbola zutitu ta egun batzuetara Amulategi baserriko txerritegia berekaxa erori ta txikitu zan. Dn. Jose preso eduki zuten txerritegia da au. Etzegon ez eror-zorian. Ez. Sendo segola esan digute.

Multa asko bota dira. 10.000 pesetako bat ere izan da. Ta zergatik orrenbeste multa? Amalloa'ko berriak aoz-ao erabiltzeagatik. Ori pekatua!

A Z K E N A

Mirariak? Olakorik! Guk ez baña eleizak dauka ortan itza. Gauzak nola izan diran eta gertatu diranen berri ematea besterik ez degu nai izan.

Eleiza gauz auetan geldi ibiltzen da. Obe ala. Jendea xsea bereala asten da miraria! miraria! ojuka; baño kontua. Gauz ontan ba ez degu itzik. Dana ta guztia Eleizaren eskuetan uzten degu.

Begira Murelaga'ko "Zeutzat" parroki-orrian azaldu zan galde-erantzuna: "Galdera: Markinar batek idatzi deust: Entzun dot Larruskain'en Dn. Jose Sagarra abadia il eben tokian bertan sagar-arbola bat, aizeak botata egoná dala bost illabete t'erdian, eta orain sagar-arbola ori sutunik dagola. Egia dá ala guzurra? Mira -

ria ala ez ?

Erantzuna: Zure eskutitzian diñozuna baño besterik es ha entzun ez ba-dozu, egia da. Aizeak jaurti eban oin bost illabete sagar-zugatz ori. Eta oin amabost egun, gauetik goizera, zuzenduta, jagita aurkitu dau bere ugazabak.

Zelan jagi dan ? Jaubiak diño ara ez dala iñor joan a jasotzera. Berak esan dausku urkula bat ipiñi gura izan eutsola beia jo baiño len eta semiak galaso eutsola. Orain berak ez dakiala zelan arbola ori sutunik aurkitzen dan eta beretzat mirari aundi bat dala.

Nik, gauz asko jakin arren, ori miraria bada edo ez jakitera ez naiz el-tzen. Eleizia oso geldiro ibiltzen da mirari gaietan. Jaungoikoaren gauzia bada Berak badau indarra eta agertuko dau bere eskua.

Ori sinistu baño len astiro ibilli. Jaso eztakitzun Ezkioga'ko sorgin-keriekin jaso jakuna". ("Zeutzat" 1958'ko -XII-I-)

O A R R A

Irakurle ! Onuzkero kez karen bat eado nabaitu dezu zure barnean. Bear bada bein baño geiagotan zerura begira jarrita esan dezu zure kolkorako; egia ote da ? guzurra ? Egon lasai. Ez izutu. B Bota zure kez kak, iturri on eta garbietako urak edan baidituzu. Guk emen jarritako guztiak bide onetik etorritako berriak dira.

Bedi guztia egiaren izenean !!!

Jon Jokin Otador

